

Frantziako minoritate kulturen alde

Duela amar urte Frantzian, Deixonne legeak, euskal, bretoi, katalan, occitanu kulturei leku bat egin zuen; ots eskoletan erriko Edestia, Geografia ta izkuntza erakusteko ordu bete et'erdia uzten zen. Amalau urtetan igaroten den *certificat* delakoaren oralaen izkuntza haietako ikerketa bat egiten ahal zen; alaber Bachilleratuan oral-ikerketa bat egiten aal zen, bigarren izkuntza gisa. Geroztik zubi azpitan ur asko ixuri da eta lege horrez minoritateak oso gaizki baliatu. Lenen oztopo ederrena maisuen aldetik etorri da eta Euskal Erri guzian M. de Jaureguiberry anderea, Euskalzaindikoa, bakarra izan da euskeraren erakusle; gainera —bigarren oztopo— libururik ez da egin. Hor Euskalzaleen Biltzarra lokartua ez da goraiatzeko. Duela bi urte gure zabarkeriaz konturatzeko lege txar horren kontrako bat baizik ez zen bear; eta euskera ta besteak bachilleratutik kendu nai izan dizkigunean esnatu gira. FRAMM (Comité catholique pour la fraternité d'action des minorités métropolitaines) lenen batasuna gure kulturen alde katolikuen artean lan egiten ari da. MLCR (Mouvement laïque pour les cultures régionales) ezkertiarra aldiz. Marly'n Parise ondoan 1959'ko abenduan Ibarrondo jauna euskeraren alde mintzatu zen eta 1960'ko abenduan Jon Mirande Euskal literaturaz. Azken batasun honen euskaldun buruzagia S. Narbaitz jauna da.

Euskal Errian beinepein, bakoitzak bere alderdietan bildu jendeekin biltzarre bat montatu dute, danek IKAS batasunean parte dute, naiz eskola laiku, naiz apaiz-eskolatakoak. IKAS Euskal Erriko eskoletarako liburuak eta diskuak egiten asi da. Holako batasunak

gure aurretik baziren occitanuen artean Conselh d'Estudis de l'IEO, bretoien artean AR FALZ; haietan etsenplu artuta egin da IKAS.

Baionako Musée Basque delakoan IKAS'ek bi euskerazko kurtsu iriki ditu; bata Aranburu jaunaren karguz, bestea Dagorret, EGAN'eko idazlearen, karguz. Astelen, asteazken ta ostiralez jende andientzat eta ostegunez aurrentzat; asteko ogeitamar bat jende bildu omen dituzte. Euzkerazko diskuak egiten asiak dire ta abio ona da. Baina lazteko lana bada egiteko Euskal Erriko maisuak prestatzeko ta gureganatzeko; erriko-etxeak, udalak interesatzeko; zeren Donapaleu ondoan bezala erri euskaldunetan ere maisuak kontra dire ta erriak euskal disku edo libururik ez erosi nai. Bordele-n Goyenette jaunak lan ederrik egiten du: Euskal Kulturazko Klub bat egin du; Klub hartako mintzaldi batzu emanak izan dire irrati-bidez, Radio Bordeaux'en igande goizez entzun dire. Pariseko Euskalzalen Bil-tzarrak, erderaz euskeraren alde lan egiten du, baina euskal-kulturaren aipamenik ere ez dute egiten, emen ere baserritarismua, arrixku ga-beko euskaldungoa maite baita.

Parisen. Otsailaren, 22 a.

D. PEILLEN.

